

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Osasuneko profesionalak simulazio klinikoko baliabideak izango dituzte beren prestakuntzari laguntza emateko

*Vera kontseilariak Nafarroako Ospitalegunean dagoen Osasun Esperientzien Zentroa inauguratu du gaur*

Jueves, 26 de febrero de 2015

Osasun Departamentuak egoera kliniko konplexuen simulazio-teknikak erabiliko ditu, osasun-profesionalak, besteak beste, mediku-tekniketan nahiz pazientearekiko komunikazioan edo taldeko lanean prestatzeko tresna modura.


Xede horretarako sortu da Osasun Esperientzien Zentroa. Osasun kontseilari Marta Verak inauguratu du gaur eta Nafarroako Ospitaleguneko irakaskuntza-pabiloian dago. Harekin batera, honako hauek izan dira ekitaldian: Osasunbideko zuzendari-kudeatzaile Cristina Ibarrola, Pazientearen Arreta eta Kalitateko zuzendari José María Iribarren eta Ikerketa, Berrikuntza eta Osasun Prestakuntza Zerbitzuko zuzendari Luis Gabilondo, beste osasun-arduradun batzuen artean.

Zentroa abian jarrita, gainera, pazienteak arretako prozesuetan izandako esperientzia zein den jakiteko proiektuak egin ahalko dira, honako helburu honekin: haien behar eta ezagutzetan sakontzea, Nafarroako osasun-sistema hobetu eta berritzeko iturri gisa.

### 240 metro koadro eta bost eremu simulazio-prozesuetarako

Nafarroako Ospitaleguneko irakaskuntza-pabiloian dauden instalazio berriek 240 metro koadro dute, eta simulazio-prozesuak egiteko bost eremu ditu:

laparoskopiko eremua, paziente kritikoaren eremua, ekografia-eremua, mediku-kontsultako eremua eta esperientziak aztertzeke gela (debriefing). Ekipamendu teknikoan, honako hauetarako simulazioak daude: ekografia, laparoskopia, bizi-konstanteak, arritmiak, desfibriladoreak, bizkortzeke eta traumatismo anizetarako ekipoak, ekografo eramangarria, zenbait panpina-mota hainbat teknika praktikan jartzeko...



Cristina Ibarrola eta Marta Vera, ekografiak simulatzeko gelan.

Zentroak bideo-grabaketako sistema moderno bat du ere gela bakoitzean; informatika-programa bat du eta, hari esker, kameretatik eta monitorizazio-aparatuetatik sortutako irudien kudeaketa integra daiteke. Hala, "debriefing" -eko gelan profesionalak egindako jarduerak erreproduzitu eta aztertu daitezke, simulatutako pazienteei hartutako parametroetan lortutako efektuekin batera.

Zentroak 355.000 euroko kostua du, eta kopuru horretatik 90.000 euro egokitzapen-obretarako dira; 179.000 simulazio-ekipoetarako; 57.000 bideo-grabaketako ekipoetarako, eta 29.000, altzarietarako. Osasun Departamentuak aurreikusten duenez, datozen hiru urteetan zentroak bertako azalera eta hornidura bikoiztuko ditu, berariazko beste eremu batzuk sartuz: ebakuntza-gela, erizaintzako teknikak. eta abar, esaterako.

### **Prestakuntza-programa 2015erako**

Osasun Esperientzien Zentroak 2015erako prestakuntza-programa bat prestatu du simulazio-teknikek, eta bertan 731 bai ikaslek parte hartuko dute (prestakuntzako 476 ordu) ondorengo eremuetan:

Pazientearekiko komunikazioa (4 ikastaro); pazientearen segurtasuna (2); ekografia (16); zaintza kritikoak (18); bizkortze kardiobaskularra (20); kirurgia laparaskopikoa (2); esperientziak ebaluatzeko metodologiak (2); simulazio-metodologiak (1).

### **Simulazioa hobetzeko tresna modura**

Errealitatetik hurbil dauden baldintzetan egoera kliniko konplexuak simulatzea, osasun.profesionalen eta pazienteen parte hartzearekin, tresna garrantzitsua da osasun-sistema hobetzeko; izan ere, horri esker detekta daitezke: arreta-prozesuetako akats ohikoenak; profesionalen prestakuntzako gabeziak eta taldeko lan profesional anitzean dauden zailtasunak. Gainera, pazientearen esperientzia ebalua daiteke, beren beharrak nahiz jokabideak identifikatu eta sanitario-paziente harremanaren ereduetan esku hartzen duten faktoreak zein diren jakin.

Prestakuntzan, akatsak saihestu eta pazienteen intimitatea errespetatzen ditu irakaskuntza-prozesuan, eta egokia da abildade teknikoetan trebatzeko, jokabideetarako eta komunikaziorako, errepikatzeko duen gaitasun eta autonomia handiagoagatik.